

**Nazioarteko borroka- eta elkartasun-deialdia,
Puerto Ricon Zergak Kontrolatzeko Batzordea ezartzearen kontra.**

Arrazoi hori dela eta, nazioarteko komunitateari eta Puerto Ricoko diasporari dei egiten diegu, gure herrialdeak bizi duen egoerarekin elkartasuna adieraz dezaten. Gogora dezagun Puerto Rico Ameriketako Estatu Batuen (AEB) kolonia dela 1898tik. Inbasio-urteetatik gaur egun arte, AEBek eta haien Puerto Ricoko gobernu kolonialak ekonomia eta politika kontrolatzeko hainbat eta hainbat lege ezarri dituzte; hala nola 1900eko Foraker Legea, 1917ko Jones Legea, 1947ko Mozal Legea, 600/1953 Legea, 7/2009 Legea... Guztiek ere Ameriketako koloniarik zaharreneko errealitate soziala, ekonomikoa eta politikoa astindu dituzte. Krisi ekonomiko etsigarri batean ipini gaituzte, gure bitartekoak harrapatzen jarraitzeko helburuarekin; bien bitartean, herritarren bizi-baldintzak hondatzen ari dira martxa bizkorrean; esate baterako, zerbitzu medikoak, hezkuntza, oinarrizko elikagaien prezioak garestitzea, handitzen ari den langabezia eta krimilitate-indizea handitzea. Emigrazioa inoiz pentsa ezin zitekeen mailaraino handitu da, eta gure herrialdea interes handien esku ipintzen ari dira etengabe, negozioak eta oporraldiak egiteko. Gaur egun, Puerto Rico Karibeko Grezia bilakatu da: 73.000 mila milioi dolarreko zorra du Wall Streeteko finantza-kapitalarekin. **Zergak Kontrolatzeko Batzordea 5278Proiektutik** sortua da, eta herrialdea odolustea du helburu hartzekodunen onurarako (putreak). Hura ezarri ostean, **estatu-kolpe bigunen estiloari jarraikiz** eta AEBetako inperialismoak betierekotuta, honako alderdi hauek ezarriko dituzte:

Zergak Kontrolatzeko Batzordea (ZKB) 12 puntutan:

1. ZKB zazpi kidez osatuta egongo da; zuzenean Gobernu Federalak izendatuko ditu, bakar-bakarrik. Haietako kide bakar batek izan beharko ditu egoitza edo negozioak Puerto Ricon. **Ez Puerto Ricoko gobernadoreak, ez tokiko legediak, ez dute inolako aginpiderik izango Zergak Kontrolatzeko Batzordean, ezta hartzen dituzten erabakien gainean ere.**
2. ZKBk gutxienez 4 urte iraungo du. Ez dago ezarrita gehieneko urte kopururik.
3. Zergak Kontrolatzeko Batzordeak **herrialdeko aurrekontu eta lege guztiak kontrolatuko ditu.**
4. **Indarrrik gabe utzi ahal izango ditu**, noiznahi, dagoeneko onartuta dauden legeak.
5. **Aktiboak saldu ahal izango ditu** (ondasunak, jabetzak, eraikinak, korporazio publikoak eta tankerakoak).
6. **Erabakiko du zein lege onartuko diren eta zein ez**, inpaktu fiskala irizpide bakar gisa erabilita, **nahiz eta horrek herritarren bizitza, osasuna eta baliabide naturalak eta sozialak hondatu.**
7. Era berean, **lanpostuak izozteko eta murrizteko eskumena izango du, baita langileak kaleratzeko ere.**
8. Zergak Kontrolatzeko Batzordeak**bertan behera utziko ditu aparteko orduak ordaintzeko legeak eta neurriak.**
9. Esplotazio ekonomikoko egoeran ipiniko ditu uharteko 20 eta 25 urte bitarteko gazteak, **4,25 dolarreko gutxieneko soldata ezarrita.**
10. **Grebak eta lanuzteak egiteko eskubidea kenduko du.**
11. Ez du pizgarri ekonomikorik onartuko. Ez du berdintasunik ezarriko Medicare funtsetan, ezta bestelako funts federaletan ere. **EZ ditu pentsiodunak babestuko.**

12. Hartzekodunen interes ekonomikoak bakarrik babestuko ditu (putreak).

Puerto Ricoko diasporari dei egiten diogu, munduko edozer txokotan daudela ere, Zergak Kontrolatzeko Batzordearen kontra antola daitezten, baita mugimendu sozial eta erakunde politiko internazionalistei ere. Nola? Sartu <https://juntecontralajunta.wordpress.com> helbideak eta eguneratu. Lortu **informazioa eta salaketarako erremintak**. Mobilizatu zure auzoa eta komunitatea informazio-hitzaldiak prestatuta, buletinak banatuta edota piketeak eta martxak antolatuta Zergak Kontrolatzeko Batzordearen kontra. Eraiki dezagun erresistentzia!

Zergak Kontrolatzeko Batzorderik ez!

Kolonialismorik ez!

Inperialismorik ez!

Harremanetarako:

Junte contra la Junta (Puerto Rico)

<https://juntecontralajunta.wordpress.com>

lageteantesqueladeuda@gmail.com

<https://www.facebook.com/juntecontralajunta/>

Comité Boricua en la Diaspora – ComBo- (New York, USA)

[facebook.com/comiteboricua](https://www.facebook.com/comiteboricua)

comiteboricua@gmail.com

decolonizepr@gmail.com (Chicago, USA)